



## ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA - EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS IZENPE SA-REN ESTATUTU SOZIALEN TESTU BATEGINA

### I. TITULUA.- IZENA, HELBURU SOZIALA, IRAUPENA ETA EGOITZA SOZIALA

#### 1. ARTIKULUA.- Izena

“Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa - Empresa de Certificación y Servicios Izenpe SA” izeneko sozietateak merkataritza-izaera du, eta sozietate anonimo gisa eratu da.

"Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa - Empresa de Certificación y Servicios Izenpe SA" sozietatea *Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte* – *Sociedad Informática del Gobierno Vasco SAREN* (Ejie), *Lantik, SAREN*, *Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte* - *Sociedad Foral de Servicios Informáticos SAREN* (IZFE) eta *Arabako Kalkulu Gunea SAREN* bitarteko propio pertsonifikatutzat hartuko da, eta *Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32.4 artikuluan ezarritakoa aplikatuz*, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Bizkaiko Foru Aldundiaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Arabako Foru Aldundiaren eta haien mendeko gainerako entitate publikoen bitarteko propio pertsonifikatuaren izaera izango du.

"Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa - Empresa de Certificación y Servicios Izenpe SA" bitarteko propietzat duten erakundeek lanak, zerbitzuak eta edozein jarduketa eta enkargu egiteko agindu ahal izango diote, betiere haien xedea estatutu sozialen 4. artikuluko 1. atalean identifikatuta dauden helburu sozialeko jardueretako bat bada.

"Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa - Empresa de Certificación y Servicios Izenpe SA" bitarteko propio duten botere esleitzzaileek egiten dizkioten enkarguak: (i) instrumentalak eta ez-kontratuzkoak izango dira, eta, beraz, ondorio guztietarako, barneko eta mendeko izaera izango dute; (ii) enkarguen bidez antolatuko dira, enkarguaren xedea, epeak eta gainerako baldintzak zehaztuta; (ii) nahitaez egingo dira; (iii) enkargua egiten duen organoak finkatutako tarifen bidez ordainduko dira; eta (iv) enkargua ematen duen organoak enkargua egiteko beharrezkoak diren jarraibideak emateko duen ahalaz ezarriko dute.

Enkarguaren tarifa edo ordainsaria finkatzeko, “Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa - Empresa de Certificación y Servicios Izenpe SAK” zuzenean gauzatutako unitateei bidezko tarifak aplikatuko zaizkie arauz finkatutako moduan, “Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa - Empresa de Certificación y Servicios Izenpe SAK” enkarguaren xede diren eta enpresaburu partikularrekin azpikontratatzan diren jardueren inguruan jasandako benetako kostua kontuan hartuta.

Tarifa horiek enkarguaren benetako kostuak adierazteko moduan kalkulatuko dira, eta produktutako unitateetan aplikatzeak "Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa - Empresa de Certificación y Servicios Izenpe SAK" zuzenean egindako inbertsioa edo zerbitzuak justifikatzeko balioko du.

“Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa - Empresa de Certificación y Servicios Izenpe SAK” ezin izango du parte hartu bitarteko propietzat duten botere esleitzzaileek deitutako lizitazio publikoetan; nolana ere, lizitatzailerik agertzen ez denean, lizitazio horien xede den prestazioa egiteko enkargua egin ahal izango zaio.



## **2. ARTIKULUA.- Araubide Juridikoa**

Adierazitako sozietatearen araubide juridikoak estatutu hauei, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuari eta aplikatu beharreko gainerako lege-xedapenei jarraituko beharko die.

## **3. ARTIKULUA.- Egoitza soziala**

Egoitza soziala Gasteizen (Araba) kokatuta dago: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71, 1. solairua – PK: 01008.

Administrazio Kontseiluak egoitza Estatu osoaren barruan lekualdatzea eta sukurtsalak, agentziak edo ordezkariak Estatuan zein atzerrian sortzea, kentzea edo lekualdatzea erabaki ahal izango du, enpresaren jardueraren garapenaren ondorioz beharrezkoa edo komenigarria denean.

## **4. ARTIKULUA.- Helburu soziala**

1. Honako hau da ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA - EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS IZENPE Saren helburua:
  - a) Telekomunikazio-sareetako harreman elektronikoak sustatzea, beharrezkoak diren segurtasun-bermeekin.
  - b) Euskal sektore publikoa osatzen duten erakundeen esparruan eta teknika eta baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoen bidez, komunikazioetan segurtasun-zerbitzuak, zerbitzu teknikoak eta antolamendu-zerbitzuak ematea.
  - c) Pertsonen edo erakunde publiko edo pribatuen identifikatzeko, autentifikatzeko, sinatzeko eta/edo zigilatze baliabide eta sistema elektronikoak ematea eta kudeatzea.
  - d) Aholkularitza-zerbitzuak eta aurreko paragrafoetan adierazitako beste edozein zerbitzu.
2. Sozietateak bere helburu sozialari lotutako jarduerak, osorik edo zati batean, zeharka egin ahal izango ditu, helburu bera edo antzekoa duten sozietateetako partaidetza-akzioen titulartasunaren bidez. Era berean, beste enpresa batzuekin lankidetzan jardun ahal izango du epe jakin, zehatz edo zehaztugabe batean, apirilaren 30eko 12/1991 Legeak araututako aldi baterako enpresa-elkarteen edo interes ekonomikoko elkarten bidez.

Atal honetan bildutako jarduketak, kasu bakoitzean bidezkoak diren izapideak betetzea galarazi gabe, Akziodunen Batzar Nagusiaren alde aurreko eta berariazko baimenaren baldintzapean egongo dira.

Sozietateak, halaber, zeharka egin ahal izango ditu arestian adierazitako jarduerak, osorik edo zati batean, antzeko helburua duten beste sozietate batzuetan partaidetza izatearen bidez.



## **5. ARTIKULUA.- Iraupena**

Sozietateak iraupen mugagabea du, eta eratu den egunean bertan hasi da bere jarduerak egiten, orain arte ezarritako lege-erantzukizunak galarazi gabe.

## **II. TITULUA.- KAPITAL SOZIALA ETA AKZIOAK**

### **6. ARTIKULUA.- Kapital soziala**

Sozietatearen kapital soziala MILIOI BAT BERREHUN MILA EURO (1.200.000 €) da, eta 60 euroko balio nominala duten, klase eta serie berekoak diren eta 1etik 20.000ra era korrelatiboan zenbakituta dauden akzio izendunetan banatuta dago.

Kapital soziala erabat harpidetuta eta ordainduta dago.

### **7. ARTIKULUA.- Akzioaren titulua**

Akzioak tituluen bidez ordezkaturiko dira. Titulu horiei serie bereko akzio bat edo gehiago gaineratu ahal izango zaizkie, era korrelatiboan zenbakituta egongo dira, taloi-liburuetan egingo dira, legeak eskatutako aipamenak jasoko dituzte gutxienez, Administrazio Kontseiluko bi kidek sinatuko dituzte, eta, nolana ere, kide horien sinadura erreproduzio mekaniko bidez inprimatu ahal izango da, Legean xedatutakoa betez. Akziodunak eskubidea izango du dagozkion tituluak gasturik gabe jasotzeko.

Akzioak Sozietateak eramango duen erregistro-liburu batean agertuko dira. Erregistro-liburu horretan, egiten diren transferentziak eta haien gaineko eskubide errealek eraketa inskribatuko dira, legean zehaztutako moduan. Administrazio Kontseiluak akzioen eskualdaketa edo endosuen katearen erregulartasuna egiaztatzeko bidezkotzat hartzen dituen frogabideak eskatu ahal izango ditu, eskualdaketa erregistro-liburuan inskribatu aurretik. Tituluak inprimatzen eta ematen ez diren bitartean, akziodunak eskubidea izango du bere izenean inskribatutako akzioen ziurtagiria lortzeko.

Akzioak askatasun osoz negoziatu daitezke, estatutu hauen 9. artikuluan xedatutakoa galarazi gabe, eta haien eskualdaketa Legean eta xedapen osagarrietan ezarritakoaren arabera egingo da.

### **8. ARTIKULUA.- Bazkide-izaeraren esleipena**

Akzioak bazkide-izaera ematen dio haien titular legitimoari, eta Estatutuetan eta Legean aitortutako eskubideak esleitzen dizkio.

### **9. ARTIKULUA.- Akzioak eskualdatzeko araubidea**

Akzioak inter vivos egintzen bidez eskualdatzeko eta kapital-zabalkuntzak egiteko aukera Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa - Empresa de Certificación y Servicios Izenpe SAko bazkideek eta kapital osoa publikoa duten sektore publikoko entitateek lehentasunez eskuratzeko duten eskubideari lotuta egongo da, honako baldintza hauetan:

1. Akzioak inter vivos eskualdatzeko asmoa idatziz jakinarazi beharko zaio, hartu-agiriarekin, Administrazio Kontseiluari, sozietatearen egoitzan, honako hauek adierazita: eskualdatu nahi diren akzioen kopurua eta identifikazioa, eskuratzaillearen identitatea, prezioa eta eskualdaketa gainerako baldintzak. Komunikazio hori jaso ondoren, Administrazio Kontseiluak gainerako bazkideei jakinaraziko die hamabost eguneko epean, adierazitako komunikazioa helarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Bazkideek erosteko aukera izango dute hogeita hamar eguneko epe berri batean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.
2. Bazkide batzuek lehentasunez eskuratzeko eskubide hori erabiltzen badute, salmentako akzioak administratzaileek banatuko dituzte bazkide horien artean, kapital sozialean duten partaidetzaren arabera hainbanatuta, eta, akzio horiek zatietan direnez gero, batzuk esleitu gabe geratzen badira, akziodun eskatzaileen artean banatuko dira, sozietatearen duten partaidetzaren arabera, handienetik txikienera; berdinketarik izanez gero, esleipena zozketa bidez egingo da.
3. Hamabost eguneko epean, akziodunei lehentasunez erosteko eskubidea baliatzeko emandako hogeita hamar eguneko epea amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Administrazio Kontseiluak akzioak eskuratu nahi dituztenen izena jakinaraziko dio eskualdatu nahi dituen akziodunari.
4. Bazkideek eskuratu nahi ez dituzten akzioak Sozietateak eskuratu ahal izango ditu hogeita hamar eguneko epe berri batean, akziodunei lehentasunez erosteko eskubidea baliatzeko emandakoa amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, kapital soziala murriztu ondoren amortizatzen.
5. Azken epea igaro eta ezin bazkidek eta Sozietateak lehentasunez erosteko eskubidea erabili ez badute, akziodunak askatasun osoz eskuratu ahal izango ditu akzioak sei hilabeteko epean, eskaini dituen baldintza berberetan, eta epe hori amaitu baino lehen besterentzea gauzatzen ez badu, berriro jakinarazi beharko du akzioak inter vivos eskualdatzeko asmoa, artikulua honetan ezarritako moduan.
6. Akziodun eskualdatzailea ez da behartuta egongo eskaintako akzioen eskualdaketa partziala onartzera.
7. Artikulu honetan lehentasunez erosteko ematen den eskubidea baliatzeko, eskuratzeprezioa, desadostasunik izanez gero, akzioek sozietateari eskualdatzeko asmoa jakinarazten zaion egunean duten arrazoizko balioaren arabera finkatuko da. Arrazoizko balioa da Sozietateko auditoreaz bestelako aditu independente batek finkatzen duena eta edozein interesdunek eskatuta Sozietateko administratzaileek horretarako izendatzen dutena. Adituak Administrazio Kontseiluaren enkargua jaso eta hurrengo hogeita egun baliadun barruan egin beharko du bere txostena. Adituaren gastuak Sozietatearen kontura izango dira.
8. Artikulu honetan xedatutakoari lotu gabeko eskualdaketa ez dira baliozkoak izango Sozietatearen aurrean, eta hark uko egingo dio eskualdaketa akzio izendunen erregistro-liburuan inskribatzeari.
9. Heriotzagatik eskuratzeko kasuetan, murrizketa bera aplikatuko da, inter vivos eskualdaketa bazkideen eta Sozietatearen aldeko lehentasunezko eskubidea baliatzeko ezarritako salbuespen eta prozedura berberekin. Prozedura horren lehen eguna inskripzioa eskatzen den eguna izango da, eta Kapital Sozietateen Legearen Testu Bateginaren 124. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

10. Aurrekoa gorabehera, akziodunen arteko, akziodunaren ezkontidearen, aurreko ahaidearen edo ondorengo ahaidearen aldeko edo eskualdatzailearen talde bereko sozietateen aldeko inter vivos edo mortis causa egintzen bidezko akzio-eskualdaketa askea izango da, eta ez da beharrezkoa izango artikulua honetan aurreikusitako betekizunak betetzea.
11. Akzioak betearazpen-prozedura judizial edo administratibo baten ondorioz eskuratu direnean, mortis causa eskuraketetan aplikatzen den araubide bera aplikatuko da.
12. Sozietate titularraren likidazioan bazkideei egindako esleipenen ondoriozko akzio-eskuratzeak akzio horien mortis causa eskualdaketarako aurreikusitako estatutu-araubideari jarraituko diote.

### III. TITULUA.- SOZIETATEAREN ORGANOAK

#### 10. ARTIKULUA.- Organo sozialak

Sozietatearen organo sozialak honako hauek izango dira: Akziodunen Batzar Nagusia (Sozietatearen organo gorena) eta Administrazio Kontseilua (sozietatea kudeatzeko eta ordezkatzeko funtzioa betetzen duen kide anitzeko organoa).

### LEHEN SEKZIOA

#### AKZIODUNEN BATZAR NAGUSIA

#### 11. ARTIKULUA.- Izaera, eskumena, erabakien nahitaezkotasuna eta batzar motak.

1. Akziodunen Batzar Nagusia, legez deituta eta eratuta, Sozietatearen organo gorena da.
2. Baliozkotasunez hartutako erabakiak nahitaezkoak izango dira akziodun guztientzat, baita ados ez daudentzat edo bertaratu ez direnentzat ere.

Batzar Nagusiaren erabakiak, nolana ere, aldeko botoak bertan edo ordezkatuta dauden akzioei dagozkien botoen erdiak baino gehiago direnean onartuko dira, Legeak gehiago handiagoa eskatzen duen kasuetan izan ezik.

3. Batzar Nagusiak ahalmena izango du Sozietatearen eta haren ondasunen eta eragiketen inguruko erabaki mota oro hartzeko, Legean aurreikusitakoari jarraikiz.

Bereziki eta pribatiboki, honako hauek dagozkie:

- a. Urteko kontuak onartzea, emaitza aplikatzea eta kudeaketa soziala onartzea.

- b. Administratzaileak, likidatzaileak eta, hala badagokio, kontu-auditoreak izendatzea eta kargutik kentzea, eta haien aurkako erantzukizun-ekintza soziala baliatzea.
- c. Estatutu Sozialak aldatzea.
- d. Kapital soziala handitzea eta murriztea.
- e. Lehentasunez harpidetzeko eskubidea eta lehentasunez bereganatzeko eskubidea ezabatzea edo mugatzea.
- f. Funtsezko aktiboak eskuratzea, besterentzea edo beste sozietate bati ematea.
- g. Aktiboa eta pasiboa eraldatzea, bat egitea, zatitzea edo lagatzea, eta egoitza atzerrira lekualdatzea.
- h. Sozietatea desegitea.
- i. Azken likidazio-balantzea onartzea.
- j. Ordura arte Sozietateak berak garatutako funtsezko jarduerak mendeko erakundeei transferitzea, jarduera horiek Sozietatearen esku jarraituko badute ere.
- k. Sozietatearen likidazioak duenaren pareko ondorioa izango duten eragiketak egitea.
- l. Kontseilarien ordainsari-politika, legean ezarritakoaren arabera.
- m. Legean edo Estatutuetan finkatutako beste edozein alderdi.

Adierazitako egintzen zerrendak adierazpen-izaera hutsa du, eta inoiz ez du Batzar Nagusiaren jarduna mugatuko.

4. Akziodunen Batzar Nagusia ohikoa edo ezohikoa izan daiteke.

Ohiko Batzarra deialdia egin ondoren ekitaldi bakoitzeko lehen sei hilabeteen barruan kudeaketa soziala zentsuratzeko, aurreko ekitaldiko kontuak onartzeko (hala badagokio) eta emaitzaren aplikazioari buruz ebazteko nahitaez bildu beharrekoa da.

Gainerako batzar guztiak ezohikoak izango dira, eta Administrazio Kontseiluak deituta egingo dira (sozietatearen interesetarako komenigarritzat jotzen duenean), edota gutxienez kapital sozialaren ehuneko bostaren titularrak diren bazkideen kopuru batek eskatuta. Eskabidean, nolahi ere, Batzarrean aztertu beharreko gaiak adieraziko dira, eta Kapital Sozietateen Legearen Testu Bateginean finkatutako moduan jardungo da.

Hala ere, Batzar Nagusiak, ohiko gisa deituta ere, bere eskumenekoa den eta deialdian txertatu den edozein gai buruz eztabaidatu eta erabaki ahal izango du, Kapital Sozietateen Legearen Testu Bateginean xedatutakoa bete ondoren.

## **12. ARTIKULUA.- Batzarrerako deialdia eta bertaratzea**

Aplikatu beharreko legezko xedapenetan ezarritakoa beteko da, honako hauei dagokienez: Batzar Nagusien erregulazioa, eraketa, bertaratzeko, ordezkatzeko eta botoa emateko eskubideak, erabakiak hartzea, informazio-eskubidea eta gainerako eskubideak, Estatutu hauetan ezarritako berezitasun edo salbuespenekin.

1. Ohiko Batzarren zein Ezohiko Batzarren deialdiari, garapenari, quorumei, eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko moduari eta akten idazketari eta onarpenari lotutako betekizunei dagokienez, Kapital Sozietateen Legearen V. Tituluan xedatutakoari eta, hala badagokio, aplikatu beharreko legeetan finkatutakoari jarraituko zaio.
2. Batzar Nagusian parte hartzeko, bilera egingo den lekura joan ahal izango da, edota, hala badagokio, sozietateak ezarritako beste leku batzuetara, betiere telefono-konferentziaren, bideokonferentziaren edo bertaratuak ezagutzeko eta identifikatzeko, bildutakoen artean era iraunkorrean komunikatzeko (edozein lekutan daudela ere) eta esku hartzeko eta botoa emateko aukera emango duen beste edozein komunikazio-bideren bidez konektatuta badaude; eta, hori guztia, denbora errealean. Leku nagusiak egoitza soziala dagoen udal-mugaratean kokatuta egon beharko du, baina hori ez da beharrezkoa izango leku osagarrien kasuan. Edozein lekutara bertarutzen direnak, Batzar Nagusiari lotutako ondorioetarako, bilera bakar eta berera bertaratutzat hartuko dira. Bilera leku nagusia dagoen lekuan egin dela ulertuko da.

Batzarrera baliabide telematikoen bidez bertaratzea aurreikusten den kasuetan, Kapital Sozietateen Legearen 182. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio deialdian.

3. Administrazio Kontseiluko lehendakaria Batzar Nagusietako lehendakaria ere izango da, eta, kargua hutsik badago, ez badago edo gaixorik badago, lehendakariordeek ordezkatzeko dute izendapen-hurrenkeraren arabera, eta, halakorik ezean, Batzarrak horretarako izendatzen dituenek. Kontseiluko idazkaria Batzar Nagusietako idazkaria ere izango da, eta, hori ez badago, Batzarrak berak izendatzen duen pertsona.

## **13. ARTIKULUA.- Batzarreko ordezkaritza**

Bertaratzeko eskubidea duen akziodun oro beste pertsona baten bidez ordezkatu ahal izango da, hura akzioduna ez izanik ere, Legean ezarritako moduan eta baldintzetan.

Ordezkaritza idatziz edo lege honetan urruneko boto-eskubidea baliatzeko ezarritako betekizunak betetzen dituzten urruneko komunikazio-baliabideen bidez eman beharko da, batzar bakoitzerako izaera bereziarekin.

Ordezkaritza errebokatu egin daiteke noiznahi. Ordezkatua Batzarrera joateak ordezkaritza errebokatzearen balioa izango du.

- Akzio bakoitzak boto bat emateko eskubidea emango dio titularrari.
- Akziodunek Sozietatearen erabakiei buruz informatzeko eta erabaki horiek aurkaratzeko duten eskubideak Kapital Sozietateen Legearen xedapenei lotuta dago.

#### **14. ARTIKULUA.- Sozietatearen erabakien betearazgarritasuna**

Batzarraren akta legez aurreikusitako edozein modutan onartu ondoren, Sozietatearen erabakiak betearazleak eta nahitaezkoak izango dira berehala bazkide guztientzat, baita ados ez daudenenentzat edo bertaratu ez direnentzat ere.

Sozietatearen erabakiei buruzko dokumentazioari eta erabaki horiek egiaztatzeko moduari dagokienez, Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduan xedatutakoari jarraituko zaio.

### **BIGARREN SEKZIOA**

#### **ADMINISTRAZIO KONTSEILUA**

#### **15. ARTIKULUA.- Administrazio Kontseilua eta bertako kideak**

1. Sozietatea Administrazio Kontseilu batek zuzendu eta administratuko du, eta Kontseilu hori gutxienez bost kidek eta gehienez hemezortzik osatuko dute. Kontseilari izendatzeko, ez da beharrezkoa izango bazkide izatea. Kontseilariak Batzar Nagusiak izendatuko ditu, Sozietatean duten akzio-partaidetzaren proportzioan, eta hark berak finkatuko du kontseilarien kopurua, adierazitako muga barruan.
2. Kontseilariaren karguak sei urteko iraupena izango du, eta beste behin edo gehiagotan aukeratu ahal izango da, iraupen bereko aldiatarako.
3. Ezin izango dira administratzaileak izan legezko debeku edo bateraezintasunen bat duten pertsonak.

#### **16. ARTIKULUA.- Administrazio Kontseiluaren garapena**

1. Administrazio Kontseiluak hiru hilean behin bildu beharko du gutxienez.
2. Administrazio Kontseilurako deialdia lehendakariak edo haren ordezkariak egingo du. Gutxienez Administrazio Kontseiluko kideen herena osatzen duten administratzaileek Kontseilurako deialdia egin ahal izango dute, bileraren gai-zerrenda, lekua, eguna eta ordua adierazita, egoitza soziala dagoen herrian egiteko, betiere lehendakariari eskaera egin eta hark, arrazoi justifikaturik gabe, hilabeteko epean deialdia egin ez badu.

Deialdia postaz, telefaxez, posta elektronikoz edo igorri izana egiaztatzeko aukera emango duen beste baliabide baten bidez bidaliko zaie Kontseiluko kideei, Kontseilua egin baino 5 egun lehenago gutxienez. Dena dela, Kontseilurako deialdia hori baino lehenago ere egin ahal izango da larrialdi-kasuan. Larrialdia, nolahi ere, Administrazio Kontseiluko lehendakariak edo haren ordezkariak hauteman beharko du.

3. Kontseilua balio osoz eratuko da bilerara kideen erdiak gehi bat joaten direnean (bertararuta edo beste kontseilari batek ordezkaturuta). Ordezkaritza lehendakariari zuzendutako gutun baten bidez emango da. Kontseilura joateko ordezkariak beste kontseilari batek hartuko du nahitaez.



Aurrekoa galarazi gabe, Kontseilua deialdiaren beharrik gabe balio osoz eraturtat hartuko da kide guztiek (bertaratuta edo ordezkaturata) bilkura egitea aho batez onartzen dutenean.

4. Kontseiluak, halaber, erabakiak hartu ahal izango ditu idatziz bilkura egin behar izan gabe, aplikatu beharreko araudian ezarritakoari jarraikiz.
5. Kontseilariak telefono-konferentziaren, bideokonferentziaren edo bertaratutakoak ezagutu eta identifikatzeko, bertaratutakoaren artean etengabe komunikatzeko (dauden lekuan daudela ere) eta botoa emateko eta esku hartzeko (hori guztia denbora errealean) aukera emango duen beste edozein komunikazio-bideren bidez parte hartu ahal izango dute Administrazio Kontseiluaren bileran. Arestian deskribatutako komunikazio-bideen bitartez parte hartzen duen pertsona Administrazio Kontseiluaren bilera pertsonalki joan dela ulertuko da.

Kontseilari batek edo gehiagok bileran telefono-konferentziaren, bideokonferentziaren edo beste edozein komunikazio-bideren bitartez parte hartzen badute, deialdian adierazitako lekua hartuko da bilera hori egiteko lekutzat.

Administrazio Kontseiluko idazkariak, fisikoki edota beste kontseilari baten bidez ordezkaturata joaten diren kontseilariak gain, bileran telefono-konferentziaren, bideokonferentziaren edota beste antzeko sistema baten bitartez parte hartzen duten kontseilariak jaso beharko ditu horrela egindako bileren aktetan.

6. Administrazio Kontseiluaren erabakiak bilkuran bertaratuta edo ordezkaturata dauden kontseilarien gehiengo osoz hartuko dira. Bozketetan berdinketarik izanez gero, lehendakariaren botoak erabakiko du.
7. Idatzizko eta bilkurarik gabeko bozketa baliozkoa izango da ezein kontseilari aurka ez badago.
8. Kontseiluaren eztabaidak eta erabakiak Akta Liburura eramango dira, eta lehendakariak (edo haren ordezkariak) eta idazkariak sinatuko dituzte.

Kontseiluaren erabakiak egiaztatzeko beharrezkoak diren ziurtagiriak –osoak edo partzialak– idazkariak egin eta sinatuko ditu, lehendakariaren edo une bakoitzean indarrean dagoen legeriak ahalbidetzen dituenen oniritziarekin.

Agerkari publikoan formalizatzeko ardura Kontseiluko edozein kideri eta idazkariari edo idazkariordeari (nahiz eta kontseilariak ez izan) dagokie.

## **17. ARTIKULUA.- Administrazio Kontseiluaren funtzioak**

Kontseiluaren eskumenekoak dira honako ahalmen hauek (horien zerrendak adierazpen-izaera du, eta ez ditu inola ere mugatzen Sozietatearen negozioak eta interesak Akziodunen Batzar Nagusiaren eskumenari bereziki lotuta ez dauden alderdi guztietan gobernatzeko, zuzentzeko eta administratzeko dituen ahalmenak):

- a) Sozietatearen funtzionamendua antolatu, zuzendu eta ikuskatzea eta haren jarduera bideratu, zaindu eta zuzentzea, enpresaren jardunarekin edo trafikoarekin zuzenean edo zeharka lotuta dauden negozio eta gai guztiak konpontzeko ahalmenekin (eta, besteak beste, ondoren orientabide gisa adieraziko ditugunekin).
- b) Batzar Nagusiaren erabakiak betearaztea.
- c) Sozietatea ordezkatzeko mota orotako negozioetan, kontratuetan, egintzetan, gai judizialetan, administratiboetan, administrazioarekiko auzietan, epaiketetan, epaiketarik kanpo, eta, oro har, egintza eta kontratu mota orotan eta pertsona edo erakunde publiko edo pribatu ororen aurrean.
- d) Helburu soziala gauzatzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren egintzak eta kontratuak egitea, higiezinak eskuratu eta besterentzekoak eta eskubide errealak eratu, aldatu edo azkentzekoak barnean hartuta, hipotekari lotutakoak eta errentamendu-kontratu berezia salbuetsi gabe.
- e) Enpresako langileak izendatzea eta kentzea, lana banatzea, ordenari eta diziplinari eustea eta egiten diren hutsegiteak zuzentzea.
- f) Sozietatearentzat komenigarriak izan daitezkeen kreditu-eragiketak eta gainerako finantza-eragiketak erabakitzea.
- g) Enkanteetara, lehiaketetara, enkante-lehiaketetara eta, oro har, mota orotako lizitazioetara joatea, horretarako eskaintzak eta proposamenak, erreserbak eta protestak sinatzea eta aurkeztea, horiek hobetzea eta kentzea, eskudirutan, baloreetan edo beste edozein modu onargarri edo galdagarritan egindako behin-behineko edo behin betiko gordailuak edo fidantzak eratzea eta ezerezteak, behin-behineko zein behin betiko esleipenak onartzea, haien emaitzazko zenbatekoa Ogasun Ordezkaritzetan, ordainleku militarretan edo beste edozein erakunde publiko edo pribatutan (Espainiako Bankua eta haren sukurtsalak barne) kobratzea edo ordaintzea (bidezkoa denaren arabera), eta, horretarako, aktak, ordainagiriak, ordainketa-gutunak eta adierazitako helburuetarako beharrezkoak diren gainerako dokumentuak sinatzea.
- h) Ondasun higigarriak edo higiezinak erostea, saltzea, trukatzeko, administratzea eta edozein tituluren bidez eskuratzeko, besterentzea eta kargatzea; mota orotako finkak taldekatzea, partzelatzea, zatitzea eta bereiztea; obra berri eta eraitsiaren adierazpenak formalizatzea; zortasunak, erroldak, gozamenak, erabilerak, gelak, bahiak, hipotekak, antikresiak, dohaintzak, errentamenduak, komodatuak, mota orotako erkidegoak, jabetza horizontala, azalera-errealak eta, oro har, edozein eskubide erreal edo jabetza berezi (urak, mendiak, meatzea, jabetza intelektuala, industria-jabetza eta beste batzuk) eratzea, aitortzea, onartzea, gauzatzeko, eskualdatzea, zatitzea, aldatzea, azkentzea eta ezerezteak, osorik edo zati batean, aktiboki edo pasiboki, horien guztien edukia zabaltzeko, aldatzeko edo baldintzatzeko askatasun osoarekin eta inolako mugarik gabe.
- i) Sozietatearen merkataritzaren edo industriaren mota orotako egintzak, kontratuak edo negozioak edo merkataritza-betebeharrak eratu edo egitea, aitortzea, lagatzea, berrestea, azkentzea edo ezerezteak.
- j) Kanbio-letrak (finantzarioak eta merkataritzakoak), taloiak, txekuek eta beste efektu batzuk igortzea, negoziatzea, abalatzeko, endosatzea, kobratzea, ordaintzea, deskontatzea, kontu hartzea, onartzea eta protestatzea; aurrezki-kontuak eta aurrezki-libretak, kontu korrontek eta kreditu-kontuak irekitzea, jarraitzea, erabiltzea, aldatzea, indargabetzea eta likidatzea (berme errealarekin, pertsonalarekin edo balore-bermearekin) eta haiei

adostasuna ematea; kreditu-polizak hitzartzea, merkataritza-kredituak aktiboki edo pasiboki hitzartzea; dirua maileguan ematea eta hartzea, interesarekin edo interesik gabe eta berme pertsonalarekin, balore-bermearekin edo beste edozein bermerekin; eskudiruaren, baloreen edo beste ondasun batzuen behin-behineko edo behin betiko fidantzak eta gordailuak eratzea, transferitzea, aldatzea, indargabetzea eta kentzea; efektuak eta baloreak erostea, saltzea, trukitzea, pignoratzea edo negoziatzea eta haien interesak, dibidenduak eta amortizazioak kobratzea; edozein zor, kreditu eta zenbateko aitortzea, onartzea, ordaintzea eta kobratzea; eta, oro har, aurreko ahalmen guztiak baliatzea, Ogasuneko, ordainleku militarretako, Espainiako Bankuko eta Banco Hipotecario eta Banco de Crédito Industrial erakundeetako eta haien sukurtsaletako edozein erakunde edo pertsona fisiko edo juridikoren aurrean (edo haiekin) eta edozein izen edo motatako entitateen, korporazioen, elkarteen, fundazio publiko edo pribatuen, sozietateen, bankuen edo beste batzuen aurrean (edo haiekin).

- k) Sozietatearen beraren edo hirugarrenen aldeko abal, fidantza eta berme pertsonal zein erreal mota oro inolako mugarik gabe maileguan ematea (baita hipoteka-bermea ere, modalitate guztietan), bidezko kontratuen baldintzak ezartzea, eskusio- eta zatiketa-onurei uko egitea eta fidantzamendu solidarioak ematea. Horretarako, aipatutako fidantzamenduak formalizatzeko beharrezkoak diren dokumentu publiko eta pribatu guztiak sinatu ahal izango ditu.
- l) Edozein tituluren bidez, beste konpainia batzuen akzioak edo partaidetza sozialak eskuratzea, sorrerako unean eta kapital-zabalkuntzetan harpidetzea barne, diruzkoak edo ez-diruzkoak izan daitezkeen ekarpenen bidez.
- m) Sozietatearen izenean agertzea eta Sozietatea ordezkatzeko epaitegietan, auzitegietan, magistraturetan, fiskaltzetan, ministerioetan eta haien egoitzetan, sindikatuetan, ordezkarietan, epaimahaietan, batzordeetan, notariotzetan, erregistroetan eta mota orotako bulego publiko edo pribatuetan, Estatuko, autonomia-erkidegoetako, probintziako, udaletako, institutuak, korporazioetako, elkarteetako eta fundazio publiko edo ofizialetako mota orotako bulego publiko edo pribatu, agintaritzak eta organismoetan, organismo, enpresa edo zerbitzu autonomo eta independenteetan, maila, jurisdikzio eta instantzia guztietako prozedura, egintza, kontratu, auzi edo gai zibil, penal eta administratiboetan, gobernu-arlokoetan, lan-arlokoetan, zerga-arlokoetan eta eliza-arlokoetan; horien barruan, mota orotako espedienteak, aktak, epaketak, atxikipenak, izapideak, salbuespenak, adierazpenak, erreklamazioak, kexak eta errekurtsio arruntak (baita kasazio-errekurtsioak barne), sustatzea, eskatzea, jarraitzea, erantzutea, amaitzea eta horietan esku hartzea, eragile eskatzaile, laguntzaile, errekeritu, mandatatu edo aurkari gisa edo beste edozein kontzeptupean, berrespen pertsonalak, atzera egiteak eta amore emateak formalizatzeko eta horiek eteteko, amore emateko, uko egiteko eta zuzenbide- edo ekitate-arbitroekin konprometitzeko ahalmenarekin, edo, zorionez, prozedura, egintza, kontratu, auzi edo gai beretan; Auzitegietako prokuradoreentzat, abokatuentzat eta lan-harremanetako gradudunentzat, ohiko ahalmenak dituzten ahalordeak ematea eta errebokatzea.
- n) Ekitaldi soziala itxi eta hiru hilabeteko gehieneko epean, urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta emaitza aplikatzeko proposamena formulatzea, baita, hala badagokio, kontu bateratuak eta kudeaketa-txosten bateratua ere.
- o) Komenigarri irizten diona erabakitzea Sozietateari dagozkion mota orotako eskubideak, ekintzak, erreklamazioak eta errekurtsioak baliatzerakoan, mota, maila eta jurisdikzio guztietako epaitegi eta auzitegietan eta Estatuko, autonomia-erkidegoetako, probintzietako, udalerrietako eta beste erakunde publiko batzuetako agintari eta bulegoen aurrean, komenigarritzat hartzen duenean batzuei eta besteei uko egitea eta letratu eta prokuradoreen aldeko ahalordeak ematea auzietan sozietatea defendatzeko.
- p) Edozein izaeratako ondasun eta eskubideen gainean amore ematea eta zuzenbideko edo ekitateko arbitrajepan jartzea prozedura horren beharra duten arazo guztiak.
- q) Bere helburu soziala osatzen duten zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaz bestelako pertsona edo administrazio publiko edo pribatuei eman dakien erabakitzea.

- r) Estatutu sozial hauetan emandako ahalmenak osorik edo zati batean ordeztea eta, horretarako, bidezkotzat hartzen diren ahaldunak izendatzea, bidezko ahalorde-eskriurak egilestearen bidez; nolana ere, errebokatu ahal izango dira bidezkotzat hartzen denean.

#### **18. ARTIKULUA.- Batzorde Betearazlea eta ahalmenen eskuordetzea**

Administrazio Kontseiluak, Kapital Sozietateen Legearen Testu Bateginean ezarritakoa betez, Batzorde Betearazle bat edo kontseilari delegatu bat edo batzuk izendatu ahal izango ditu bere baitan, kargu horiek bete behar dituzten pertsonak eta jarduteko modua finkatuko du, eta haiei eskuordetu ahal izango dizkie, osorik edo zati batean, aldi baterako edo izaera iraunkorrarekin, legearen arabera eskuordezinak ez diren ahalmen guztiak.

Ahalmenen baten eskuordetze iraunkorra baliozkoa izateko, Kontseilua osatzen dutenen bi herenen aldeko botoa beharko da, eta horrek ez du ezein ondorio sortuko Merkataritza Erregistroan inskribatu arte.

Administrazio Kontseiluak, halaber, bere ordezkari-ahalmenak kontseilari bati edo gehiagori eskuordetu ahal izango dizkio izaera iraunkorrarekin, eta, bat baino gehiago badira, elkarrekin jardun behar duten ala bereiz jardun dezaketen finkatuko du.

### **IV. TITULUA.- URTEKO KONTUAK**

#### **19. ARTIKULUA.- Ekitaldi soziala**

Ekitaldi soziala urte natural bakoitzeko urtarrilaren batean hasi eta abenduaren hogeita hamaikan amaituko da.

Salbuespen gisa, lehen ekitaldi soziala eraketa-eskriura sinatu zen egunean hasi zen, eta urte bereko abenduaren hogeita hamaikan amaituko da.

#### **20. ARTIKULUA.- Urteko kontuak**

Administrazio-organoak, legezko epearen barruan, urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta emaitza aplikatzeko proposamena formulatuko ditu. Urteko kontuetan, honako hauek jasoko dira: balantzea, galdu-irabazien kontua, ekitaldiko ondare garbiaren aldaketak islatuko dituen egoera-orria, diru-fluxuaren egoera-orria eta memoria.

- Urteko kontuak eta kudeaketa-txostena kontu-auditoreek berrikusi beharko dituzte. Auditore horiek Batzar Nagusiak izendatuko ditu auditatu beharreko ekitaldia amaitu aurretik, hiru urtetik bederatzira bitarteko hasierako aldi baterako, auditatu beharreko lehen ekitaldia hasten den egunetik aurrera zenbatzen hasita.
- Akziodunen Batzar Nagusiak urteko kontuak onartuko ditu, eta emaitzaren eta kudeaketa-txostenaren inguruko ebazpena emango du.

## V. TITULUA.- SOZIETATEA DESEGITEA

### 21. ARTIKULUA.- Desegiteko erabakia

Sozietatea Batzar Nagusiak noiznahi hartutako erabaki bidez desegingo da, Legean ezarritako betekizunei jarraikiz eta Lege horretan bertan aurreikusitako gainerako arrazoiengatik.

Sozietatea Batzar Nagusiaren erabakia behar duen legezko arrazoiren batengatik desegin behar denean, administrazio-organoak arrazoi hori agertu eta bi hilabeteko epean egin beharko du Batzar Nagusirako deialdia, desegiteko erabakia har dezan, eta arrazoiak arrazoi erabakia lortzen ez bada, legean ezarritako moduan jokatu da. Sozietatea ondare garbia kapital sozialaren erditik beherako zenbateko batera murriztu delako desegin behar denean, kapital soziala gehitzeko edo murrizteko erabakiaren bidez edo ondare soziala behar besteko neurrian berregitearen bidez saihestu ahal izango da desegitea. Erregularizazio hori eraginkorra izateko, Sozietatearen desegitea judiziala dekretatu aurretik egin beharko da.

### 22. ARTIKULUA.- Desegiteko prozedura

Desegiteari, likidatzaileen izendapenari eta ahalmenari, likidazioari eta azkentzeari dagokien orotan, Kapital Sozietateen Legearen Testu Bategineko X. Tituluan eta aplikatu beharreko gainerako lege-xedapenetan xedatutakoari jarraituko zaio.

## VI. TITULUA.- AZKEN XEDAPENA

### 23. ARTIKULUA.- Bateriaezintasunak

Debekatuta dago kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legeak eta Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legeak eraginpean hartutako pertsonen Sozietatean karguak betetzea eta ordainsariak jasotzea.

IZENPE SA IZENPE SAK digitalki  
sinatua  
Data: 2019.12.04  
10:00:49 +01'00'